

KOSTUAK

Hasteko, kostu finko batzuk ditugu. Horietako bat, denda fisikoaren alokairua da, hau da, 3 pinganillo nahiz 100 pinganillo ekoiztu, alokairuaren prezioa ez da aldatzen. Gainera, dendan bertan, langileren bat kontratatuko dugu saltzaile moduan. Honi ordaindu beharreko soldata ere ez da aldatuko, hilero kantitate bera ordainduko genioke. Bestalde, biltegi bat izango dugu gure esku, bertan, gure produktuak biltegitratzeko.



Beste kostu mota batzuk, kostu aldakorak dira. Multzo hau, ekoiztutako kantitatearen arabera edo eskatutako kopuruaren arabera aldatu egiten da. Gero eta pinganillo gehiago, gero eta gastu handiagoak jasango ditugu. Adibide garbia da bezeroentzat kontratatuko dugun garraioa, hau da, bezeroak online bidez eskatuko balu produktua, gure lana izango litzateke garraioan bidaltzea bezeroaren etxera. Hau aldakorra da, ez baita berdina egun batean 5 furgoneta bidaltzea edota 15.



Bigarren gastu aldakorra, eta enpresan gastu handiena suposatzen duena, *Beltone* enpresari ordaindu beharreko kopurua da, gure produktua ekoizteagatik. Hala ere, ekonomia-eskala kontutan izan behar da, gero eta pinganillo gehiagoren eskaria egin, orduan eta deskontu handiagoa egingo baitigute. Beste modu batera esanda, unitate bakoitzeko kostua baxuagoa da 1000 pinganilloren ekoizpena eskatzen dugunean, 100 pinganillorena eskatzen dugunean baino.



Gure enpresa, produktuak duen kalitate-mailan oinarritzen da. Gure interes handiena ez da kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea.

Hau dena kontuan hartuta, kostuen prezioak honako hauek izango lirateke:

| | Kostu Finkoak | Kostu Aldakorrak |
|--|-----------------------|--|
| Denda Fisikoa (alokairua) | 900-1000€ /hilabeteko | |
| Biltegia | 2.500€ / hilabeteko | |
| Gure soldata | 3100€ / hilabeteko | |
| Langilearen soldata | 2000 € /hilabeteko | |
| Garraioa | | 20-30€ / produktuko *beste produktu batzuk garraiatzen ditu gureaz gain. |
| Beltone enpresari ordaindu beharreko kop | | 300€ / produktuko |

Hau dena kontuan izanik, bankuari mailegu bat eskatuko diogu gure negozioa aurrera atera dezagun. Hainbat bankuren baldintzak aztertu ondoren, Kutxa, Santander, BBVA... Laboral Kutxari mailegua eskatzea egokiena iruditu zaigu, gure negozioarekiko egokiena izan daitekeen eskaintzak proposatu baitizkigu.

Hau dena esanik, egokia iruditzen zaigu bankuari, Laboral Kutxari, 200.000€-ko mailegua eskatzea, 15 urteetan itzultzeko aukerarekin (+ interesak).

Garrantzitsua da gogoratzea, bazkide bakoitzak, 3.500€ emango ditugula negozioari, mailegurekin batera, laguntza eman ahal izateko.